

Ganera, inoz baino «traba» gehiago jarten dituela Udalak azpimarratu deuskue gazteek. «Orain artean, Zuloa Kultur Alkartean gengozanean, ez dogu inoz ezelango arazorik euki Udalagaz. Edozein baliabide eskaintzeko edota lokalak erabilteko gertu agertu izan da beti. Ez dogu inoz arazorik euki. Orain, barriz, okupatutako eraikina dogulako-edo, trabak baino ez deuskuez ipini».

Ermuko aurreko taldeek be mogimendu indartsua sortu eben herrian, Gazte Asanbladako kideen berbetan. «Ohitura zabala» egon da, eta hori bultzatu gura dabe gazteek. «Irabazi beharreko borroka izango da. Andaluzia Kultur Zentrua dan legetxe, guk be bardin lan egin gura geinkeala erakutsi gura dogu».

Gazteak kaleratzeko ahaleginik ez da egin oraindino

Gaztetxearen aurkako inongo ekimenik ez da izan Ermuko Udalaren aldetik. Halandabe, Urigintza Ordenazino Plangintzan Marques de Valdespiña parkea handitzea aurreikusten da. «Lantegia kentzeko asmoa dago. Halandabe, orain arte beste lehentasun batzuk izan dira herrian. Baina, baleike epe ez oso laburrean horrerik ekitea. Parkea handitzeko lurrak dira hemen dagozanak», dinosku Arandak.

Gaztetxetik bota ezker, baina, argi daukie gazteek egitasmoari eutsiklojakola eta beste bide batzuk jarraituko dirala.

Orain artean, antolatutako ekitaldiek «harrera ona» izan dabela esan deuskue Gazte Asanbladako kideek. Besteak beste, zezeilaren 16an, San Canuto Eguna ospatu eben, eta «jente asko» hurreratu zan; «inguruko herrietatik be bai», azaldu deuskue. Epe laburrera begira be, bestelako ekintzak antolatzeke asmoa daukiela esan deuskue. Datorren astean, Korrika Kulturaren barruan, kontzertuak izango dira. Halandaze, Nushu Emakumeen taldeak antolatuta, Jauro Barik taldea izango da Ermuko gaztetxean bertan. Era berean, Talde Antimilitaristek antolatuta, Gastu Militarren ganeko Jardunaldiak izango dira, laster.

Halandabe, gaztetxea dana behar dan moduan atontzeko lanetan jardungo dira datozen egunetan. «Gauzak garbitzen hasita gagoz. Lantegia zala kontuan izanda, zikinkerik piloa egon, eta dana ateraten jardun gara. Baina oraindino lan handia geratzen jaku. Horren ostean, Zuloa Alkartean geunkan material guztia ekarriko dogu. Orain, apurka-apurka jarraituko dogu, eta ahalik ete arinen gertu egotea gura dogu. Baleike uda parterako nahiko txukun egotea», azaldu deuskue.

OSKAR ARANDA GAZTE ASANBLADAKO KIDEA



AITZIBER BASAURI

«Gaztetxea alternatiba izatea da asmoa, baina horretarako buruari gehiago eragin behar deusagu»

A. B. | ERMUA

Ermuan gazte mugimendua «oso polarizatuta» dagoala uste dau Oskar Arandak. «Jente gitxi mogiduten da. Halandabe, talde guztiz desbardinak izan arren, alkarren artean hartu-emonetan gagoz, eta ondo konpontzen gara». Gaztetxeei jagokonez, «kasu antagonikoak» dagozala dino. ■**Zelakoa da gazte mugimendua herrian?**

Nire ustean, gauzak nahiko polarizatuta dagoz. Gazteria konprometitua ez dakit, baina nahiko jarrera aurrekakoia daukan gazteria euki du beti Ermuak. Halandabe, gauzak aldatu egin dira. Oso bereizitako alde bi sortu dira. Giro desbardin bi, eta hori zapatuetan be ikusi leike. Ermuako izpiritua dala eta, herria nahiko markatua dago. Elorrion, esaterako, gaztetxeagaz edo bestelako ekimenakaz hartu-emonak euki dau hango gazteriak. Hemen ez. Gazteria mota bi dagoz, alkarren artean oso bereizituk, ganera.

■**Guzti hori kultur mugimenduan be igarten da?**

Orokorrean, antolatzerako orduan atzerakada emon da. Pasibitatea gero eta barnertuago dago. Igoal, Ermuan gehiago igarten da; gero eta

GAZTETXEA

“Gaztetxeen ‘boom-a’ bizi dogu, 80. hamarkadan lez. Dana dala mantentzea, antolatzeke gertu dagoan jentearen eta Udalaren araberrako da”

GAZTERIA

“Polarizatuta dago gazteria. Ermuan, oso jarrera aurrerakoia izan dauan gazteria egon da. Orain, berriz, guztiz desberdinak diran bi talde daude”

jente gitxiago da mobitzen dan jentea. Dana dala, jente gitxi egon arren, eta ideologi aldetik desbardinak izan arren, gure artean hartu-emonak dago. Beste herri batzuetan, igoal, ez da halakorik gertatzen. Hori da daukagun abantaila. Gitxi gara, baina ondo konpontzen gara.

■**Euskal Herrian eta eskualdean, gaztetxeakaz tirabirak izan dira. Zornotzatik bota barri ditue. Besteak, barriz, guztiz finkatuta dagoz, Berriz edo Elorrion, adibidez. Zelan ikusten dozu gai hori?**

Nire ustez, egun gaztetxe mugimenduaren boom-a dago. Lehenengoa, 80ko hamarkadan izan zan, eta orain barriro gertatu da. Herri bakotxean

gaztetxeak matentzearena arrazoi biren araberrakoa da: antolatzen jarduteke jentea egotea eta Udalean agintean dagoanaren araberrakoa. EH-ren aldetik aldeko jarrera dago, onerako eta txarrerako. Mutrikuko Udala gaztetxea zabaltzeko jente bila dabil; datu esanguratsua da hori. Arrasaten be 200 milioi emon ditu Udalak gaztetxea eregiteko. Interesa dago. Bestalde, Zornotzan, Durangon edota Ermuan gauzak gaxagoak dira. Kasu antagonikoak emoten dira.

■**Hasi barri dan egitasmoa, epe laburrean bertan beharra geratuko danaren ardurarik badozu?**

Laster amaitu ezker, beste bateri ekingo deusagu. Ezin

gara Zuloa moduko egitasmoak, aurrera ez doazanak, matendu guran ibili. Erreta badago itxi eta beste bat zabaltu behar da. Garrantzitsuena da dagoan prozeua: batutako jentea, gauzak ikasten joatea... Jentea antolatzea, gauzak egiten ikastea... Amaierak ez dauka garrantzirik. Gaztetxetik bota ezker, gauza barriak topatzen eta lanean jarraituko gara sistemaren aurka borrokatzeke.

■**Eraikin barriak okupatuko dira, hutsik dagozanak, esaterako?**

Bai. Baina Ermuan gatxa da, justu-justu aurkitu genduan eraikin hau. 60ko hamarkadan 1.000 biztanle izatetik, 10 urtean 14.000 izatera heldu dan herria da. Hazkundera itzela izan zan. Txarto eta arin eregi zan, eta lokal edota hutsik dagozan etxe gitxi dagoz.

■**Gaztetxeak alternatiba dira?**

Hori da gure asmoa. Gaur egun, igoal ez, gitxiegi erabaliak dagoz-eta. Ideia barri gitxi dagoz. Betiko dinamikagaz jarraitzen da: kontzertuak, taillerak... Halandabe, holango aukerak askotan Udalak be rak be eskaintzen dauz. Benetan alternatiba izan daiten gehiago eragin behar deusagu buruari.